

Eusko Ikaskuntzaren Hedatuz liburutegi digitalera Europeana bidez sar daiteke

Hedatuz liburutegi digitalera Europeanatik sar daiteke jada. Europeana, kontinente guztiko 1.500 erakunde ingururen hamabost mila objektu digital baino gehiago (liburuak, eskuizkribuak, bideoak, etab) dituen europar dokumentu base handia da. 7.500 artikulua baino gehiagorekin, europar liburutegi digital handiaren baitan, HEDATUZ euskal edukia duen biltokirik handiena da.

Hedatuz Europeanak duen euskal kultur fondo handiena da. Eusko Ikaskuntzak kudeatzen du eta bertan material propioa zein beste kultur eragileena biltzen du. Guztira, 7.632 artikulua ditu. Guztietan testu osoa eskaintzen da eta gai anitzekoak dira. Historia, Antropologia eta Arteak dira nagusi, eta Zientzia Politikoak, Soziologia eta Linguistikaren ingurukoak ondoren. Testuak gazteleraz, euskaraz eta frantsesez daude idatzita batez ere.

2008az geroztik HEDATUZ on-line dago eta Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioak burutzen dituen hainbat proiektuetako lehenengoa da. Proiektuen xede nagusia hiritar guztiek kultur edukiak eskura izatea da, horrela, zientzia eta euskal kultura inguru digitalean zabaltzen laguntzeko. Bestalde, 'Kultura 2.0' ekimena dugu. Berez, Kulturaren Euskal Behatokiak bideratutako proiektua da Euskadiko enpresa eta profesionalen artean ezagutza, berrikuntza eta jarduera egokiak sustatzeko. 'Kultura 2.0' ekimenak 'kultur digitalizazioa eta zabalkundearen inguruan Proiektu Interesgarri eta Jarduera Egokien Aukeraketa' egin du. Eredutzat jotako bederatzi proiektuetako bi Eusko Ikaskuntzarenak dira: HEDATUZ eta EUSKOMEDIA FUNDAZIOA.

Ekimen horiek argi erakusten digute 1996az geroztik Eusko Ikaskuntzak bitarteko digitalen bidez edukiak ezagutzera emateko burutzen ari den lana. Zientzia eta kulturarekin lotutako edukiak izanik, kultura, gizartea, enpresa, hezkuntza eta euskal gizartearen alorrean interesgarriak gerta daitezke. Horrez gain, gizartearen beraren garapen integrala ahalbidetzeko eta Euskal gizartea hobeto ezagutua izan dadin baliagarriak dira.